

**EUSKO JAURLARITZAREN DEIALDIA,
IKERTZAILE DOKTOREAK HOBETZEKO
DOKTORETZA-ONDOKO PROGRAMARAKO
LAGUNTZA BERRIAK ETA BERRIZTAPENAK
2025-2028**

Esteka

Deialdiaren xedea:

Agindu honen bidez, Ikertzaile doktoreen hobekuntzarako 2025-2028 aldirako laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen da, EAEko ezarpen-zentroetan egongo diren eta aldi baterako atzerrira joango diren ikertzaile doktoreentzat.

Deialdiak barne hartzen du:

- a) 2025-2028 aldirako laguntza berriak ematea.
- b) Aurreko deialdian hirugarren urterako berritu ziren laguntzak 2025-2026 aldirako berritzea.
- c) 2022-2025 deialdian laguntza berria lortu zutenak 2025-2027 aldirako berritzea.
- d) Atzerriko bigarren urteko egonaldia ordaintzeko laguntza, aurreko deialdiaren (2024-2027) onuradun izaten jarraitzen duten hartzaile berrientzat.

Laguntzaren ezaugarriak:

Gehienez 26 laguntza berri emango dira Ikerketa Orokorretan eta 3 Ikerketa Espezifikokoaren lerroan, horietatik 2 Neutronikaren arloan eta 1 Hezkuntzarenean.

Gehienez 30 berritze emango dira Ikerketa Orokorraren lerroan.

Kontratuen iraupena eta ezaugarriak:

Kontratu berriek ikertzaile-doktore izateko sarbide-kontratuen ezaugarriak izango dituzte. Kontratu hori Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legearen 22. artikuluan eta indarreko lan-araudian ezarritakoaren babesean egingo da.

Kontratu berriek hiru urteko iraupena izango dute, deialdiko 9.1 oinarrian laguntza hasteko ezarritako egunetik aurrera.

Hiru urteko aldia amaitutakoan, laguntza urtebetez berritzeko aukera izango da 2024-2027 deialdiko berritzeen kasuan, eta bi urtez 2022-2025 deialdiko laguntza berrien onuradunen kasuan, berritze horretarako deialdian ezartzen diren baldintzen arabera.

60 hilabete horiek bi fasetan antolatuko dira: lehenengoa 24 hilabetekoa izango da, eta ikertzailea atzerriko ikerketa-zentro batera joango da, ikerketa-proiektu bat gauzatzeko. Bigarren fasea, berriz, 36 hilabetekoa izango da; fase horretan, ikertzailea EAEko ikerketa-talde batean sartuko da.

Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

Eskabideak aurkezteko epea **2025eko abuztuaren 11tik irailaren 15era** da, biak barne.

Laguntza berrien kasuan, garrantzitsua da deialdiko 21 eta 27. artikulua arretaz irakurtzea.

Berriztapenen kasuan, ezinbestekoa da deialdiko 21 eta 35. artikulua irakurtzea.

Hautagaiak Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoa dagoen [estekaren](#) bidez egin behar du eskabidea.

Eskabide-ereduak deialdiaren III., IV. eta V. eranskinetan agertzen dira. Eskabidea bete ondoren, eskatzaileak bere burua identifikatu beharko du sinadura elektronikoaren bidez.

Eskabidearekin batera aurkeztuko den dokumentazioa bide elektronikoz baino ez da aurkeztuko.

EHUko KONPROMISO AGIRIA LORTZEKO PROZEDURA

Eskatzaileek **2025eko irailaren 10era arte***(hori barne) izango dute dokumentu hauek aurkezteko posta elektronikoz (pre-postdoc.dgi@ehu.eus), mezuaren gaian “POSDOC deialdia Eusko Jaurlaritza” jarrita:

A) LAGUNTZA BERRIETARAKO (27.5 oinarrian):

1. **NANaren kopia.**
2. **Doktore tituluaren kopia.**
3. **Datu pertsonalen fitxa.** Eredua Ikerketa-Errektoreordetzaren webgunean.
4. **Ikerketa-proiektuaren zuzendariak sinatutako onarpen egiaztagiria** (Deialdiko 27.13 artikulua). Eredua Ikerketa-Errektoreordetzaren webgunean.

B) LEHEN ETA BIGARREN BERRITZEEN ESKATZAILEAK (35.3 oinarrian):

1. **Saileko zuzendariaren eta ikerketa-proiektuko zuzendariaren onarpena.** Eredua emailaz bidaliko zaizue.
2. **Aurretiz doktoratu-ondoko kontraturik izan duenaren adierazpena.** Eredua emailaz.

*** Data horretatik aurrera ez da konpromiso agiri gehiago egingo. Beranduago jasotzen diren eskaerak, okerrak-zuzentzeko prozeduraren ondorioz atendituko dira.**

Harremanetarako**Eusko Jaurlaritza:**

- Euskal Autonomia Erkidegotik: 012
- Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo: 945 018000
- Atzeritik: 00 34 945 018000
- zientzia.ikerketa@euskadi.eus

EHU:

Pre-postdoc.dgi@ehu.eus

Informazio gehiago:

[Ikerketa-ibilbidea. Doktoretza-ondoko Programa - Unibertsitateak. Doktoretza-aurreko programa - Euskadi.eus](#)